

/2022 FORU AGINDUA,                   aren   (e)koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, zorrak transferentzia bidez ordaintzeko prozedura eta baldintzak arautzen dituena.

Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 25. artikulua, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, ezartzen du zorrak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak baimentzen duen edozein bide erabiliz ordaintzen ahalko direla.

Ordaintzeko orduan banku transferentzia oso erabilia izateak, Europako sektore mailako araudiak (260/2012 Erregelamendua, SEPA) eta egoiliarrek ez diren ordaintzaile potentzialen kopuru handia duten zerga berrien balizko sorrerak direla-eta, oso komenigarria da ordainketa bide hori erabiltzea eta arautzea foru eskumenen eremuan.

Tradizioz, transferentziak, ordaintzeko bide gisa, zailtasun eta zeregin gehigarriak ekarri dizkio zerga administrazioari, bide horretatik jasotako diru-sarrerekin batera informazio mugatua eta urria ematen delako. Baldintza horietan, izugarri zailtzen zen jasotako diru-sarrerak behar bezala aplikatzea ordaintzeko betebeharrari eta obligaziodunari.

Foru agindu honen bidez, diru-bilketaren kudeaketan laguntzen duen erakunde batean kontu bat dutenei ordainbide berri bat eskaintzeaz gain, zorren ordainketa erraztuko da, hori egin nahi duena atzerrian dagoenean, eta erakunde laguntzaile horietan konturik izan gabe ere ordainketa egiteko aukera ahalbidetuko die.

Horregatik guztiagatik, beharrezko baldintzak zehaztu behar dira, ordainketa jasotzeko ez ezik, ordainketa behar bezala identifikatzeko, lehenik, eta aplikatzeko, ondoren. Esperientziak erakutsi duenez, berariazko prozedurak ezarri behar dira ordainbide honetarako, arazo horiek konpondu ahal izateko. Foru agindu honetan zehazten dira diru-sarrerak banku transferentzia bidez jasotzeko baldintzak. Transferentzia horiek, ezinbestean, lotuta egon beharko dira Nafarroako Foru Ogasunari informazioa ematearekin eta horiek Nafarroako Ogasun Publikoaren kontuetara bideratzearekin.

Zerbitzu hori ematen duen entitateak kontraprestazio bat jaso ahal izateko aurreikuspena sartu da, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen arabera. Izan ere, gure inguruko zerga administrazioen esperientziaren arabera, gaur egun finantza erakundeek ez dute interesik administrazio horien berezko transferentzia sistema teknologiko bati – doan – atxikitzeko.

Horrenbestez,

AGINTZEN DUT:

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

Foru agindu honen xedea da prozedura eta baldintzak ezartzea, unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera telematikoki ordaintzen ahal diren zorrak banku transferentzia bidez ordaintzeko; transferentzia horiek Nafarroako Foru Ogasunaren diru-bilketaren kudeaketan laguntzen duten entitateetan irekitako kontuetara egin beharko dira.

Foru agindu hau honako hauei dagozkien ordainketei aplikatuko zaie:

a) Bide telematikoz aurkeztutako autolikidazioen ondoriozko zorrak.

Autolikidazioak transferentzia bidez ordaintzeko, foru agindu honetan ezarritako prozeduraren arabera, ezinbestekoa izanen da telematikoki aurkeztea alde zuzenetik autolikidazioa, edo horren zirriborroa, aurkeztu aurretik ordaindu behar diren tributuen kasuan, «Transferentzia bidezko ordainketa» hautatuta Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean, Interneteko helbide honetan: <https://www.navarra.es/eu/ogasuna>, foru agindu honetan aurreikusitakoaren arabera.

Nolanahi ere, prozeduratik salbuetsita daude autolikidazio hauek:

- Zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia. Aitorpen-likidazioa (576 ereduak).
- Jokoaren administrazio kudeaketagatiko tasak (J-10, J-20, J-40, J-50 eta 763 ereduak).

– Finantza transakzioen gaineko zerga, diru-sarrera baloreen gordailuzain zentralak egiten duenean.

b) Zerga Administrazioak egindako likidazioen ondoriozko zorrak eta zehapenak.

2. artikulua. Ordainketaren data.

1. Transferentziarako adierazitako kontuan dagokion zenbatekoa sartzen den egunean hartuko da ordainketatzat, eta, une horretatik aitzina, ordaintzeko obligatioduna, Ogasun Publikoari dagokionez libre geratuko da, sartutako zenbatekoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, tributuak autolikidazioa aurkeztu ahal izateko alde zuzeneko ordainketa eskatzen duen kasuetan, ez du inolako liberazio ondorioz izanen, baldin eta ordainketa ez bada autolikidazioaren guztizko zenbatekoa.

2. «Transferentzia bidezko ordainketa» modalitatea hautatzean, berariaz ohartaraziko da erakundeari agindu-emaileak eman behar diola ordainketa agindua, eta ordainketa data transferentziarako kontuan egindako ordainketarena izanen dela.

3. artikulua. Erakunde laguntzaileak foru agindu honetan ezarritako baldintzetara atxikitzea.

Diru-bilketan parte hartzen duten entitateek, hala nahi badute, foru agindu honetan araututako prozedurari atxikitzeko eskatzen ahalko diote Diru-bilketa Zerbitzuari, eta bertan aurreikusitako baldintzak betetzen direla onartu beharko dute.

Entitateak, Zerga Administrazioari kontuak (zeinetan egiten diren transferentziak) kudeatzeko zerbitzua ematen dionak, kontraprestazio bat jasotzen ahalko du, aplikatzekoa den kontratazio publikoari buruzko araudiaren arabera.

4. artikulua. Prozedura

1. Transferentzia bidezko ordainketa prozedura gauzatzeko, zordunak transferentzia aginduko du Nafarroako Foru Ogasuneko zerbitzu telematikoek

zerga betebeharrak bakoitzeko emandako kontu-zenbakira. Horretarako, ordainketa prozedura honi atxikitako erakundeek, aldeztu aurretik, Diru-bilketa Zerbitzuari emanen diote kontuen identifikatzailea, zeinetara aginduko duten zordunek transferentzia. Zordunei emandako kontuetan egindako ordainketak egunero sartuko dira Nafarroako Foru Komunitateak ondorio horietarako soilik finantza erakunde laguntzaile bakoitzean irekitako kontu korrontean.

Egunero, prozedura honi atxikitako erakundeak, fitxategiak transmititzeko EDITRAN sistemaren bidez, fitxategi informatiko bat bidaliko du transferentzia bidez jasotako kobrantzen xehetasunekin, Espainiako kreditu erakundeek beren elkarrekin bidez (Espainiako Banku Elkarteak (AEB), Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioa (CECA) eta Kreditu Kooperatiben Batasun Nazionala (UNACC)) definitutako 43. arauaren formatuan. Fitxategi horretan, 2. erreferentzia eremuan, zordunak transferentzia agindutako kontu korrontearen identifikatzailea adieraziko da.

2. Transferentzia bidezko ordainketa honela egingen da:

a) Autolikidazioen ondoriozko zorren ordainketak:

Hasteko, behin autolikidazioa edo, aurkezpena egin aurreko ordainketa eskatzen duten zergen kasuan, autolikidazioaren zirriborroa bete ondoren, webgunean eta ordainketaren azken urratsera iritsita, «Transferentzia bidezko ordainketa» aukera hautatuko da.

Ondoren, webguneak kontu-zenbaki bat sortu eta adieraziko du, agindu-emaileak zenbatekoa ordaintzeko.

Tributuak eskatzen duenean autolikidazioa aurkeztu ahal izateko aldeztu aurreko ordainketa, soilik autolikidazioaren zenbateko osoaren ordainketak izanen du ondorio askatzailea. Transferentziaren zenbatekoa txikiagoa bada, okerreko diru-sarreratzat hartuko da.

b) Zerga Administrazioak egindako likidazioen ondoriozko zorren eta zehapenen ordainketa:

Kasu horietan, agindu-emaileak «Zergen konturako zenbatekoak sartzea» izapidea egin beharko du (P44 eredua).

Behin eskatutako informazioa beteta eta ordainketaren azken urratsera iritsita, «Transferentzia bidezko ordainketa» aukera hautatuko da.

Ondoren, webguneak kontu-zenbaki bat sortu eta adieraziko du, agindu-emaileak zenbatekoa ordaintzeko.

3. Erakundeak agindu-emaileari kobratzen ahal dizkion kudeaketa-gastuak edo komisioak agindu-emailearen kontura izanen dira, eta ez dute zerikusirik izanen transferentziagatik ordaindu beharreko zenbatekoarekin.

5. artikulua. Ordainketaren egiaztageria.

Erakunde laguntzaileak transferentzia jaso, haren zenbatekoa aurreko artikuluan zehaztutako kontu korrontean ordaindu eta ordaindutako kontzeptua egiaztatu ondoren, ordaintzeko obligaziodunak, aldez aurretik behar bezala identifikatu ondoren, dagokion ordainageria eskuratzen ahalko du Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean.

Tributuak eskatzen duenean autolikidazioa aurkeztu ahal izateko aldez aurreko ordainketa, horren ondoriozko guztizko zenbatekoa ordaintzen denean bakarrik emanen da egiaztageria.

Nolanahi ere, ordainagiri horretan 2. artikuluan aipatutakoa jasoko da ordainketa-data gisa.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.